# CORPUS CHRISTI

## *"SER AGRADECIDOS"*

### *18 de junio del 2017*

***MONICION de entrada:***

---

La solemnidad del Cuerpo y Sangre de Cristo es la prueba del amor incondicional que Dios tiene por cada uno de nosotros. Pero es más que tener amor. Dios es Amor y se nos manifiesta en su ser revelando así nuestra propia naturaleza de hijos/as de Dios. Somos para el amor.

Caritas celebra hoy su gran día, como servicio eclesial que es, para el bien de los necesitados y de todos los que por cualquier motivo están sufriendo en este mundo. Este año nos recuerda, sobre todo, la importancia del agradecimiento a los voluntarios de las parroquias y servicios, así como a los trabajadores profesionales que, todos juntos, durante estos últimos cincuenta años han conformado una bella historia de amor al prójimo, siguiendo los pasos de Jesús de Nazaret.

## *PERDON*

Al celebrar la Eucaristía, hagamos un momento de silencio y presentemos ante Dios nuestra pobreza y esperanza.

- Por nuestras falta de fe, de confianza y de compromiso cristiano. *Señor ten piedad*.
- Por nuestras faltas de amor, acogida y ternura para los más necesitados. *Cristo ten piedad*.
- Por nuestras divisiones y egoísmos; por buscar los primeros puestos y no ser humildes. *Señor ten piedad*

El Dios del amor, que nos alimenta con el pan de su Palabra y su eucaristía, tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna. Amén

## LECTURAS

### Monición

- **Deuteronomio 8, 2-3.14b-16a**: Moisés recuerda al pueblo lo que Dios ha hecho con ellos. Es verdad que ha tenido que pasar la prueba de los cuarenta años de desierto, pero así les ha conocido de verdad. Les llama a poner su confianza en Dios, a creer que su Palabra se cumple, que con Él la salvación y la liberación han llegado. Dios les ha bendecido.

- **1 Corintios 10, 16. 17**: Pablo va a aclarar a la comunidad algunas cuestiones para hacerles ver la incompatibilidad de ciertos comportamientos sacrificiales tradicionales que no congenian con la "copa de bendición", expresión más elevada de la cena pascual.

- **Juan 6, 51-59:** Estamos enmarcados en el llamado *discurso del pan,* donde Jesús va a dar a sus discípulos el alimento que perdura hasta la vida eterna. La vida de Jesús, el "pan vivo" es un pan eterno, definitivo, decisivo para la vida en plenitud que Cristo nos aporta.

**SUGERENCIAS PARA LA HOMILIA**

Hoy es el día del Corpus Christi, en que celebramos el amor fraterno, la presencia de Jesús en la eucaristía. Jesús es el pan de vida; quien coma de ese pan ya no pasará hambre de ningún tipo, y el que beba de su sangre ya no tendrá sed. La sangre que da vida al organismo humano y el pan que sostiene el cuerpo en la necesidad, son para el cristiano Cristo Jesús. Él corre por nuestras venas y sacia nuestras hambres, cada vez que celebramos y damos gracias en la Eucaristía, porque Jesús ha venido a nuestras vidas, nos ha liberado de toda esclavitud, ha calmado la sed en nuestros desiertos y ha alimentado nuestra vida para que viva siempre.

Sabemos que queda mucho por hacer. Esa llamada de Caritas en el día de hoy a ser comunidad de hermanos, fraternidad universal, amor encaminado a una humanización eterna es y será siempre en reto apasionado y profético para construirnos un mundo más justo y pacificado.

Pero, a lo largo de los años, y en concreto en estos últimos cincuenta años de historia de Caritas Gipuzkoa, muchos son los que se han sentido amados por Dios gracias al amor ofertado por personas, organismos, y servicios de nuestra Iglesia, respondiendo a lo que dice el evangelio de san Juan: *"tanto amó Dios al mundo que nos entregó a su hijo"* (Jn 3,16). Porque el meollo está en esto, en la entrega, en nuestra entrega. Es lo más importante para nosotros. Queremos ser agradecidos con Dios misterio de Amor incondicional y con tanta buena gente que dejándose animar por este Dios compasivo y misericordioso ha hecho de Caritas su casa habitual de encuentro con su humanidad más humana.

Se afirma en la Evangelii gaudium del Papa Francisco que, la Iglesia debería de ser *"abogada de justicia y defensora de los pobres"* desde una "*renovada pastoral social para la promoción humana integral"*, lo cual implicaría, como objetivo último que, *"los pobres se encuentren en la iglesia como en su propia casa"*. Se nos anima a renovar nuestra

*“amistad con los pobres”* porque *“no son meros objetos de nuestra caridad sino vicarios de Cristo”*. Por tanto no se trata de *“hacer cosas o prestar ayudas, sino ser hermanos”* (EG 198).

Por otra parte, se nos anima a *“no reducir los problemas económicos y sociales a meros problemas personales”*, porque así se ignoran las dimensiones estructurales que laten por debajo y las causas y los responsables de esos problemas: *“hay que resolver las causas estructurales de la pobreza y promover el desarrollo integral de los pobres”* (EG 188). El reto es anunciar la Buena Noticia con *“audacia y entrega esperanzada”* (EG 109). En eso estamos. Nos anima la llamada a la *“nueva imaginación de la caridad”.* Repensar los objetivos, las estructuras, el estilo y los métodos evangelizadores (EG 33).

La historia continua y en la cruz han muero nuestros miedos, en la muerte de Cristo percibimos que la vida es posible, en el dolor del sufriente comprendemos quién nos libera, el resucitado. Por eso la esperanza continúa, la vida buena se derrama, y esperamos las promesas del Reino de Dios, Reino de vida y verdad, Reino de justicia y de paz, Reino de amor y generosidad. La presencia viva en la Eucaristía es cierta. Cada vez que comemos y bebemos nos hacemos uno en el Señor y nos abrimos a todos con el Señor, construyendo así una familia de hijos de Dios en la verdad. Y lo queremos hacer agradecidos desde esa presencia sacramental que nos conmueve y nos compromete en el gozo de un mundo más justo para todos.

## *ORACION DE LOS FIELES*

En este día en que Cristo nos ofreció signos palpables de su amor eterno, oremos confiadamente al Padre de la misericordia.

1. Por la Iglesia para que sea en el mundo signo vivo y eficaz de comunión. *Roguemos al Señor*.

2. Por los que tienen autoridad y recursos en este mundo, para que promuevan el bien común. *Roguemos al Señor.*

3. Por Caritas y todos los que en la iglesia sirven a los pobres, para que seamos signo del amor de Dios para los pobres. *Roguemos al Señor.*

4. Por todos los difuntos, especialmente por aquellos que mueren en la calle, en los campos de refugiados, en los mares y en las fronteras. *Roguemos al Señor*.

Escúchanos Padre y ayúdanos a vivir como hijos tuyos y hermanos de todas las personas. Por Jesucristo nuestro Señor. Amén.

## ***COLECTA***

La colecta de este día está destinada a Cáritas de la Parroquia, para que podamos disponer de los fondos necesarios para ayudar a las personas y familias más necesitadas de nuestro entorno.

## **LA PAZ**

El mayor pecado de la tierra  es la división y el enfrentamiento entre los seres humanos. La mayor desgracia es el olvido y la indiferencia ante el drama de media humanidad que malvive en la miseria. No hay paz si no hay justicia y respeto a los derechos humanos de todos. Démonos la paz en la verdad de una vida nueva.

# CORPUS EGUNA

## *“ESKER ONEKOAK IZATEA”*

### *2017ko ekainaren 18a*

***SARRERA:***

Kristoren Gorputz eta Odolaren ospakizunean agerian jartzen da Jainkoak baldintzarik gabe maite duela gutako bakoitza. Baina maitatzea baino gehiago da. Jainkoa Maitasuna da, eta bere izatean agertzen zaigu, gu geu Jainkoaren seme-alabak garela erakutsiz. Maitasunerako eginda gaude.

Caritasek bere egun handia ospatzen du gaur, beharra dutenen aldeko eta mundu honetan edozein arrazoi dela medio sufritzen ari diren guztien aldeko eliza-zerbitzua den aldetik. Eta aurten, gogorarazten digu, batez ere, zeinen garrantzitsua den esker onekoak izatea parrokiako eta zerbitzuetako boluntarioekin, bai eta horiekin batera jardun duten langile profesionalekin ere, azken berrogeita hamar urteotan denek batera lagundu baitute Jesus Nazaretekoaren urratsei jarraituz lagun hurkoaren aldeko maitasun-istorio ederra osatzen.

## *BARKAMENA*

Eukaristia ospatzean, egin dezagun isilune bat eta aurkez diezazkiogun Jainkoari gure gabeziak eta itxaropena.

- Federik gabe, konfiantzarik gabe eta kristau-konpromisorik gabe jokatzeagatik. *Erruki, jauna.*
- Gehien behar dutenei maitasunik ez erakusteagatik, harrera ez egiteagatik, eta haiekin samurtasunez ez jokatzeagatik. *Kristo, erruki.*
- Gure banaketengatik eta geurekoiak izateagatik; lehen postuen bila ibiltzeagatik eta apalak ez izateagatik. *Erruki, jauna.*

Maitasunaren Jainkoak, bere Hitzaren eta eukaristiaren ogiz elikatzen gaituenak, erruki gaitzala, barka ditzala gure bekatuak eta eraman gaitzala betiko bizitzara. Amen.

## IRAKURGAIAK

**Oharra**

- **Deuteronomioa 8, 2-3.14b-16a**: Moisesek bere herriari gogorarazten dio zer egin duen Jainkoak beren alde. Egia da basamortuan berrogei urtez ibilarazi dituela, proba moduan, baina horrela, benetan ezagutu ditu. Jainkoarengan konfiantza izateko eskatzen die, bai eta sinesteko ere haren Hitza betetzen dela, Harekin salbamena eta askapena iritsi direla. Jainkoak bedeinkatu egin ditu.

- **1 Korintoarrei 10, 16. 17**: Paulok zenbait auzi argituko dizkio elkarteari, ikus dezaten tradiziozko zenbait opari-eskaintza ez direla bateragarriak "esker oneko koparekin", hau da, pazko-afariaren adierazpen gorenarekin.

- **Joan 6, 51-59:** *Ogiaren hitzaldia* izenekoan, betiko bizitzara arte irauten duen elikagaia eman behar die Jesusek bere ikasleei. Jesusen bizitza, "ogi bizia", betiereko ogia da, betirakoa, erabakigarria Kristok ematen digun bizitza asebete horretarako.

**HOMILIARAKO IRADOKIZUNAK**

Gaur Corpus Eguna da, eta egun honetan senideen arteko maitasuna ospatzen dugu, Jesus eukaristian gure artean izatea. Jesus biziaren ogia da; ogi horretatik jaten duenak ez du inolako goserik izango, eta haren odola edaten duena ez da egarri izango. Odolak bizia ematen dio giza gorputzari, eta ogiak bizirik eusten dio gorputzari beharra dagoenean, eta hori dena Kristo Jesus da kristauarentzat. Bera dabil gure zainetan zehar, eta berak asebetetzen ditu gure goseak, Eukaristian ospatu eta eskerrak ematen ditugun bakoitzean. Izan ere, Jesus gure bizitzara etorri da, esklabotza orotik askatu gaitu, gure egarria asetu du gure basamortuetan, eta gure bizia elikatu du, betiko bizi dadin.

Badakigu asko dagoela egiteko. Gaurko egunez senide-elkarte izatera dei egiten digu Caritasek, senide-elkarte izatera eta senidetasun unibertsalean bizitzera, bai eta maitasunez bizitzera ere, bizitza gizatiarragoa izan dadin betiko, eta hori oso erronka kartsua eta profetikoa da –eta hala izango da beti–, mundu bidezkoagoa eta baketsuagoa eraikitzeko.

Baina, urteetan zehar, eta zehazki Gipuzkoako Caritasen historiako azken berrogeita hamar urte hauetan, jende askok sentitu du Jainkoaren maitasuna, gure Elizako pertsonek, erakundeek eta zerbitzuek eskainitako maitasunari esker, horiek guztiek San Joanen ebanjelioak dioenari jarraiki jokatu baitute: *“Izan ere, Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme bakarra eman baitzion”* (Jn 3,16). Funtsezkoa horixe baita, eskaintzea, geure burua eskaintzea. Hori da guretzat garrantzitsuena. Esker ona adierazi nahi diogu Jainkoari, baldintzarik gabeko maitasunaren misterio den Jainko horri, bai eta Jainko errukiorraren ereduari jarraituz jokatzen duen jende on horri guztiari ere, beren jokabide horrekin Caritas bere etxea bihurtu baitute, han beren gizatasun gizatiarrena aurkitzeko.

Evangelii gaudium aholku-idazkian, Frantzisko aita santuak honela dio: “Elizak, gizarte-pastoraltza berritu batean oinarriturik, justiziaren defendatzaile eta behartsuen aldezle behar luke, osoko giza garapena

lortzeko", eta horren azken helburua "behartsuak elizan beren etxean bezala sentitzea" izango litzateke. "Behartsuekiko adiskidetasuna" berritzera animatzen gaitu; izan ere, "ez dira gure karitatearen hartzaile hutsak, baizik eta Kristoren ordezkari". Horrenbestez, kontua ez da "gauzak egitea edo laguntza ematea, baizik eta senide izatea" (EG 198).

Bestalde, esaten zaigu ezin ditugula "arazo ekonomikoak eta gizartekoak arazo pertsonal soilak balira bezala hartu", horrela ez direlako kontuan hartzen arazo horiek azpian dituzten egiturazko dimentsioak, arrazoiak eta erantzuleak: "pobreziaren egiturazko arrazoiak konpondu behar dira, eta behartsuen osoko garapena bultzatu" (EG 188). Berri Ona "ausardiaz, itxaropenez eta dena emanda" hots egitea da erronka (EG 109). Eta horretan saiatzen gara. "Karitatearen ikuspegi berrirako" deiak adoretu egiten gaitu. Ebanjelizatzeko metodoak, helburuak, egiturak eta estiloa berrikusi beharrak (EG 33).

Historiak aurrera darrai eta gurutzean hil dira gure beldurrak, Kristoren heriotzan hauteman dugu bizia posible dela, eta sufritzen duenaren oinazean ulertzen dugu nork askatzen gaituen, Jesus piztuak. Horregatik, itxaropenak ere aurrera darrai, bizitza ona zabaltzen da, eta Jainkoaren Erreinuaren promesen zain gaude, bizitzaren eta egiaren Erreinuaren zain, justiziaren eta bakearen Erreinuaren zain, maitasunaren eta eskuzabaltasunaren erreinuaren zain. Egia da Eukaristian bizirik dagoela. Jaten eta edaten dugun bakoitzean, bat egiten dugu Jainkoarengan, eta denengana zabaltzen dugu bihotza Jainkoarekin, eta horrela, egian batutako Jainkoaren seme-alaben familia eraikitzen dugu. Eta esker onez egin nahi dugu hori, presentzia sakramental horretatik abiatuta, presentzia horrek hunkitu eta bultzatu egiten baikaitu denontzat mundu bidezkoagoa lortzeko konpromisoa hartzera.

## *HERRI-OTOITZA*

Egun honetan, Kristok bere maitasun betierekoaren seinale nabarmenak eman zizkigun. Egin diezaiogun otoitz konfiantza osoz errukiaren Aitari.

1. Elizaren alde, munduan elkartasunaren ikur bizia eta eraginkorra izan dadin. *Eska diezaiogun Jaunari.*
2. Mundu honetan autoritatea eta baliabideak dituztenen alde, guztion ongia bultza dezaten. *Eska diezaiogun Jaunari.*
3. Caritasen alde, eta Elizan behartsuei zerbitzu ematen jarduten duten guztien alde, Jainkoaren maitasunaren adierazgarri izan gaitezen haientzat. *Eska diezaiogun Jaunari.*
4. Hildako guztien alde, batez ere kalean, errefuxiatu-esparruetan, itsasoan eta mugetan hiltzen direnen alde. *Eska diezaiogun Jaunari.*

Entzun iezaguzu Aita, eta lagun iezaguzu bizitzen, zure seme-alaba gisa eta pertsona guztien senide gisa. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

## *DIRU-BILKETA*

Egun honetan bildutako dirua Parrokiako Caritasentzat da, gure inguruko pertsonarik eta familiarik behartsuenei laguntzeko.

## BAKEA

Munduko bekaturik handiena gizakion arteko banaketa eta liskarrak dira. Nahigaberik handiena da premia gorrian bizi direnen drama ahaztea eta horren aurrean axolagabe agertzea. Ez dago bakerik, justiziarik gabe. Ez dago bakerik pertsona guztion giza eskubideak errespetatzen ez badira. Eman bakea elkarri, bizi berri baten egian.